

ARMENDIGAIN KALEKO 1 ERAIKINEKO 2 ZENBAKIDUN TRASTELEKUA ALOKATZEKO ZOZKETA.

DEIALDIA

Armendigain kaleko 1 zenbakidun eraikineko 2 zenbakia duen Trastelekuaren alokairu kontratuaren esleipena egiteko prozedura, zozketa bidez, irekitzen da.

1.- Eskaeren aurkezpena.

Interesdunek beraien eskaera kartazal batean aurkeztu beharko dute honako dokumentazioarekin:

- a) Lizitatuzailearen N.A.N. edo sozietate bat izanez gero, sozietate osaketako eskrituraren kopia bat, Merkatal Errejistroan izena emanda.
- b) Lizitatuzailearen adierazpena, non ziurtatzen duen, ez dagoela Estatuko 9/2017 Kontratu Legeak ezarritako debekuen artean.

Interesdunek beraien eskaerak Udal bulegoetan aurkeztuko dituzte goizeko 9etatik eguerdiko 3ak bitartean. Eskaerak aurkezteko epea, apirilaren 11-tik 22-a bitartekoa izango da.

2.- Esleipena.

Eskaerak aztertu eta ontzat eman ondoren, hamabost egun naturaletako epean, esleipena egingo du Administrazio Kontseiluak zozketa bidez .

Zozketa saio publikoan izango da eta dataren berri udalaren web orrialdean emango da.

3.- Prezioa.

Kontratu honen gutxienezko prezioa 50 €/hileko da, BEZ kanpo. Prezio honi, Euskal Autonomi Erkidegoko KPI-a gehituz joango zaio urtez urte.

4.- Kontratuaren iraupena.

Kontratu honen iraupena 3 urtetakoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik hasita.

Bi aldeek kontratua amaitu aurretik hiru hilabete baino lehenago kontrakorik azaltzen ez badute idatziz, hiru urte gehiagorako luzatuko da kontratua.

5.- Araudia.

Alokairu kontratuari aplikagarri izango zaio 29/1994 Legea, Hiri Arrendamenduen.



ESKAERA

Jaun/Andrea edo Enpresaren izena:

Enpresaren ordezkariaren izen abizenak:

NAN/CIF:

Jaiotza data:

Helbidea:

AZALTZEN DUT: Armendigain kaleko 1 eraikineko 2 zenbakia duen trastelekua alokairuan emateko baldintzak onartu eta betetzen ditudala.